

## Erregearen bufoia

**B**azen behin errege bat zaldi zahar-zahar baten jabe zena. Hainbat borrokatan ibiliak ziren elkarrekin, baina ordurako zaldi gaixoa erreumak jota zegoen eta herrenkan ibiltzen zen. Erregeak asko maite zuen zaldi zaharra eta azken gozoa eskaini nahi zion: aurrerantzean, hil arte, janari guria eta ohe biguna izango zuen.

Erregeak morroi bati eman zion zaldiaren ardura eta agur esan baino lehen hitzok esan zizkion:

- *"Zaldiaren heriotzaren berri ematera datorrenari burua moztuko diot".*

Zaldiak beste urte pare bat hartu zuen, eta azkenean hil egin zen, zaharraren zaharrez.

Morroia oso kezkatuta zegoen erregeari berri txarra eman behar ziolako. Buru makur zegoen, zer egin etzekiela. Une hartan bufoia pasatu zen ikuiluaren aurretik.

- *"Gora bihotzak!"*

- *"Nire lekuan bazeunde etzenuke hain umore onik izango."*

- *"Zer ba?"*

- *"Erregeak burua moztuko dio zaldiaren heriotza iragartzen dionari. Eta zaldia goizean hil da. Lur jota nago!"*

- *"Zaude lasai! Neuk emango diot berria erregeari."*

Esan eta egin. Bufoia erregearen aurrean agertu zen.

- *"Ba al daki berorrek azken berria?"*

- *"Ez. Esaidazu zuk".* Erregea pozik, zer entzungo, bufoiaren beste xelebrekeriaren bat izango zelakoan.

- *"Berorren zaldia etzanda dago eta ez dirudi bururik jasotzeko batere asmorik duenik. "*

- *"Zer ba?Ohh! Hil egin da!"*

- *"Hara! Berorrek esan du. Eta....badaki zein den erregearen agindua..... "*

Erregea pentsakor geratu zen eta...azkenean... bere burua moztu beharrean bere hitza jatea erabaki zuen, izan ere huraxe zen bere buruarentzat erabakirik onena.

